

2023ko Buruilaren 24ko Senaturako hauteskundeak EAJ-PNBren proposamenak

Buruilaren 24eko senatari hauteskondeetan parte hartzen ari du EAJ-PNBk hauteskunde hauetarako hautagai ezberdinak galdezkatuz, ezinbestekoak iruditzen zaizkigun gai eta proposamenen inguruan. Ipar Euskadiako ezinbesteko gai asko jokatzen dira, neurri batean behintzat, Senatuan. Lehentasunezko gaiak etxebizitza, laborantza-lurra, baina ere, euskara, Hego Euskadirekin harremanak eta Ipar Euskadiren erakundetzea dira.

Bizitzeko etxebizitza : bizitegien bide berria

- Inguruko bizilagun ainitzek bizitegi baten aurkitzeko zailtasunak handiak dituzte. Euren proiektua eramaiteko aukeratzen duten baino gehiago jasaiten dute. 2018an, Ipar Euskadiko biztanleen %70ak etxebizitzaren erosteko merkatutik kanpo geratzen zen (PLHen iturria). Kohesio sozialeko gaia ere bada, lurralde egiazko zatiketa arrisku batekin, euskal kostaldeko gunegentrifikatua, erosteko ahalmen handiko pertsonak okupatutakoa, eta biztanleria bizi mail apalago batekin, beste eremuetan, bereziki, Ipar Euskadi barnean.

Legegileak eragin handiko neurri eraginkor batzuek hartu behar ditu.

“Bizitegia : bide berria ” proiektuaren baitan, segurtamen sakon bati erantzuten dioten neurriak proposatzen ditu EAJ-PNBk : merkatu librean pil-pilean dagoen sektore honen kontrola berreskuratu behar dute botere publikoek.

2 lehentasun:

- Salmenta prezioen kontrola, tokiko merkatua berriz molda dadin, beren bizitegi nagusiaren bila dabiltzan tokiko menaiei
- Etxebizitza nagusien eta sozialen kopurua handitzea bigarren mailako etxebizitzak murriztuz eta etxebizitza sozialen merkatu librerara eskapa ez utziz.

1- Espekulazioaren aurkako “maila” zerga, salmenta prezioak kontrolatzeko

Alokairuak kontrolatzeko mekanismoak daude, kudeaketa sistemen bidez. Zergatik ez lirateke izanen salmenta prezioak kontrolatzeko mekanismoak, merkatu librean mail desegokira bihurtzen denean, tokiko biztanleen %70a baino gehiago baztertzen duelarik ?

Gure proposamena : salmenta prezioa handiegia den maila batera iristen denean, m2 guzuen gainean zerga bat ezartzen da. Operazioa hori hasi duen saltzaileak ordaintzen du. Horrek saltzailearen gandik prezioaren igoera eragotzi beharko luke.

Mekanismo honek gutxienez 2 abantaila izango lituzke :

A - Prezioen kontrola zergapeko mailaren azpitik. Zerga horrek berehala eragingo dio merkatu espekulatuzaileenari, bigarren etxebizitzeari. Horiek berriro ere irisgarriagoak izanen dira lurraldeko biztanleentzat.

B - Prezioen igoera bultzatzen duen ondare-irabazien gaineko zerga bezalako eragin kaltegarriarik ez, ordaindutako zerga konpentsatzeko. Zerga berri baten salaketaren aintzinean, neurri berri honek unkitzen du saltzailea bakarrik muga-preziora iristen edo gaingaitzen badu. Bestela, ez du ezer ordaintzen.

2 - Bigarren etxebizitza kopuruaren mugatzea

Lex Weber suitzarrak bultzatuta, Ipar Euskadik bigarren etxebizitza kopurua %10era mugatu beharko luke fenomeno honek gehien kaltetutako eremuetan. Miarritze edo Donibane Lohizune bezalako kostaldeko herriek bigarren etxebizitzaren ia %50a dute gaur egun.

Neurri honek honako hau ekarriko luke :

- Bigarren mailako bizitokien salmenta egoitza nagusietara
- Etxebizitza berriak eraikitzea bakarrik, egoitza nagusi gisa
- Egoitza nagusien salmenta egoitza nagusira bakarrik

3 – Jabetzarako etxebizitza sozialak bizitza osorako mantentzea

Baldintza onuragarrietan bizitegi zozial bat erostearen onuradun izan den menai batek merkatu askean saltzen duenean ustegabeko abantaila ukanen du, 10 urteko klausula antiespekulatiboaren ondoren, irabazte bat lortuz. Gainera, etxebizitza sozialen parkea etengabe berritu behar da.

Etxebizitza sozialen salmentak bere izaera soziala atxiki behar du, hari lotutako baldintza zehatzekin.

Laborantza-lurraren kontrola tokiko laborantza sendo bat mantentzeko

Lurzoruaren espekulazio kasuen igoera izigarriak erakusten du zein puntutaraino sortzen duen egiazko ziurgabetasun bat, etxebizitza gaiari lotutako galdera honek, lurren menpe dagoen laborantza-sektorearen etorkizunari buruz. Hemen, berriz, SAFER, laborantza-lurren erregulaziorako tresna nagusia, eraginkortasuna berreskuratzea ahalbidetu behar dute neurri sendo batzuek. Indarrean dagoen legedia ez da gehiago tokiko errealitatera egokitzen.

4 - Laborantza-lurren prezioen benetako kontrola : SAFERren erosteko lehentasun eskubidea hedatu laborantzako salmenta kasu guztietara eta baso-eremuetara.

SAFERek estimatzen duen prezioetan erosteko lehentasuna duen gaitasuna, da laborantza lurra zaintzeko eta prezioak kontrolatzeko tresna nagusia, prezio horien gainean dagoen presio handiko testuinguruan. SAFERek, beraz, laborantzako ondasunen salmenta kasu guztietan jarduteko gai izan behar du, mugarik gabe, eraginkortasuna galtzearen arriskuarekin, bestela. SAFER-ek, beraz, erosteko lehentasunezko eskubide osoa erabili ahal izan behar du, gaur arrazoinik gabe, baztertua den kasu guztietan: jabetza hutsaren eta A edo N guneeetako lursailen salmentak, laborantza-bokazioa galdu duten ondasun eraikiak barne, baso-eremuetako salmentak 2 hektarak gainditzen dituztenak barne.

5 - Laborantzaren Konstituzioan sartzea, interes orokorreko sektore gisa

Neurri honek, orduan, laborantzaren aldeko arau-neurri oso proaktiboak hartzea ahalbidetuko luke, segurtasun juridiko osoz.

Euskara eta gaskoiaren sustapen aktiboa: segurtasun juridikoa eta hizkuntza politika sustatzea

Euskarak eta gaskoi-okzitanierak kultur ekintzak sortzen dituzte, hala nola kantuan, poesian, bertsularitzan, antzerkian edo idazkeran. Euskal kulturak ez luke gehiago zentzurik izanen euskara desagertuko balitz. Ahalegin zehatz bat egin behar da, beraz.

Hizkuntzaren berreskurapenak, gutxienez, oinarrizko 3 elementu konbinatuak behar ditu : lehenik borondate soziala : motibatuenak aktibismoan dira, hala nola, ikastola berriak sortzea edo besteentzat, borondatezko engaiamendua, hala nola bere seme-alabak klase elebidunetan edo murgiltzeetan eskolatzea. Beste bi faktoreak dira borondate soziala transmititu eta laguntzeko hizkuntza politika proaktibo bat hartzea eta, azkenik, segurtasun juridikoa, hizkuntza politika hau iraunkorra egiten duena eta borondate soziala atxikitzen duena beren ekimenak egonkorrak bilakatuz.

Frantziako Estatuak ez du aintzat hartu segurtasun juridikoaren oinarrizko behar hori eta hizkuntza politikako eragile nagusi gisa duen eginkizuna. 40 urtez, euskararen koofizialtasunaren aldeko munduak, ez du marko juridiko segurrurik lortu.

EAJ-PNBk euskararen koofizializazioaren tarteko urrats bat defendatzen du: Konstituzioa aldatzearena, frantsesa ez dadin gehiago hizkuntza eskusibo bat, baizik, eta Errepublikako hizkuntza amankomuna, Eskualdeko hizkuntzei deitzen zaienekin batera. Baita era, egungo marko konstituzionala bere gorenera bultzatuko duen Euskararen Lurralde Estatutua.

6 - Konstituzioaren aldaketa, eskualdeko hizkuntzak deiturikoak benetako onarpenerako

Aldaketa hori gabe, Konstituzio Kontseiluak edo Estatu Kontseiluak bezalako Auzitegi Nagusiek Konstituzioaren 2. artikulua irakurketa murriztailea izanen dute: " Errepublikaren hizkuntza frantsesa da". Horrek izan ditzakeen ondorio negargarriekin, murgiltze-ikastaroetan edo gune publikoetan hitz egiteko eskualde-hizkuntzetan deitutakoetan.

Konstituzio aldaketak zehaztuko du Errepublikaren hizkuntza arrunta frantsesa dela. Gaur egun frantsesak izaera eskusiboa du. Eskualdeko hizkuntzak ere onartuko ditu Konstituzioak dagozkien lurraldeetan, frantsesarekin batera.

7 - Euskararen eta gaskoiaren Lurralde Estatutua, segurtasun juridikoa eta hizkuntza politika indartzeko

- Helburua : euskara-frantsesa elebitasun publikoa sustatzea, eta gaskoiera bere erabilera-eremuan, Euskal Ekargoaren eremuan.

- Frantziar Estatuaren eta Euskal Elkargoaren arteko hitzarmena egin, Frantziako Estatuak beharrezko segurtasun juridikoa bereganatuz, hizkuntza suspertzeko ezinbesteko oinarria onartuz eta Estatuaren engaiamendu sendoa, hizkuntza politika eragile nagusi gisa.

- Euskal Elkargoari derrigorrezko alde zuzeneko kontsulta, lege-proiektu edo lege-proposamen batek eskualde-hizkuntza deritzon baten erabilerari eraginen dionean, hala nola euskara.

A - Indarrean dagoen sistemari buruzko "berme juridikoak" jarraipen-zerbitzua sortzea: eskualde-hizkuntzen erabilerari eragiten dioten arau juridiko guztien inbentarioa egitea, legezko zalantza duten eragile publiko eta pribatuei aholkularitza, administrazioaren gehiegikeriak salatzea, adibidez, sortze-erregistroetan oraindik euskarazko izenak ukatzen direnean.

B - Harago joan eta blokeoak eta inertziak gainditzeko esperimentazioak egin. Erabili esperimentazioari dagozkion artikulak: Konstituzioaren 37-1 eta 72. al.4 artikulak., Euskal Elkargoari botere zentralaren arau-gaitasunak eta eskumenak emanaz : adibidez, euskarazko batxilergoa aitortzea, euskarazko ikastetxe pribatuen finantzaketa publikoa (kontratu pean Estadoarekin), tokiko botere publikoen kofinantzaketa, hala nola ikastetxe elebidunetan eta murgildutako irakasle postuetan, klase elebidun edo murgildu berriak sortzeko prozesuaren sinplifikazioa, ikasleen gurasoen nahien arabera bakarrik,...

C - Estatuak hizkuntza politikan eragile nagusi gisa duen eginkizunaren aitortza. Zenbait udalek hartutako neurriekin bat eginez, euskararen presentzia sistematikoa Estatuko zerbitzuetan: administrazioak (Baionako suprefektura, Auzitegia, Pôle Emploi, UPPA Unibertsitatea, ...), enpresak eta establezimendu publikoak (Posta, SNCF, Frantziako Bankua, EDF, CAF, etab.). Horietan euskaren aldeko neurriak : harrera zerbitzuak, langileen prestakuntza, barne seinaleetika, kanpoko komunikazio eragiketak, administrazio-agiriaren elebitasuna,... Hedabideen sustapena eta emisio publikoen ekoizpena, euskaraz,...

XXL Herri Elkargoak, Euskal Elkargoa bezala, funtzionalagoak, eraginkorragoak

Mail handiko Herri Elkargo horiek, egokitzapen zehatzak behar dituzte. 10 edo 158 herri dituzten Herri Elkargoek, Ipar Euskadin gertatzen den bezala, oso modu ezberdinean ibiltzen dira. Eguneroko arintasuna oso bestelakoa da, jakina, administrazio batek, adibidez, 10 auzapezen edo 158 auzapezen eskaerak kudeatu behar dituenean.

Erabakien desentralizazioa, proiektuak gauzatzea edo ezustekoak kudeatzea beharrezkoa bihurtzen da XXL Herri Elkargo hauetan. Hala ere, lurralde poloaren figura, herriaren eta Herri Elkargoaren tarteko maila, ez dago legez onartuta.

8 - Lurralde poloen egiteko posibilitatea eta ibiltzeko ahalmenak : aurrekontu berezia, erabakietan parte hartzea

Herri Elkargoen arduradunei ekimen-ahalmen nabarmena utziz gero, lurralde polo horien balizko existentzia legez onartu beharko litzateke. Haien ibiltzeko ahalmena aitortu behar zaie aurrekontu zehatz batekin, politika publikoekin eta erabakitzeko ahalmen zentralarekin bat eginez, baita erabakiak hartzeko parte hartzean ere, dokumento estrategikoei eta urteko aurrekontuei buruz emendakinen ahalmen baten bidez.

9 - Euskal Elkargoaren bilakaera Lurralde Erakunde zehatz batetara

Euskal Elkargoa Ipar Euskadiren erakunde aitorten baten hasiera da. Pil pilean dagoen eztabaida Euskal Elkargoaren gobernantza da. Hala ere, Senatua, Lurraldeen Ganberak, prest egon behar da, lurralde-antolamendu berri baten eztabaidari, hurrengo agintaldian, Ipar Euskadirentzat, Lurralde Erakunde zehatz bat eskuratzeko aukera izanen duena. Honako ezaugarri hauek izanen ditu : gaitasun normatibo berriak eta aurrekonturako eta fiskalitate autonomia.

Hego Euskadirekin harremanak indartzea

Ipar Euskadik Hego Euskadirekin proiektuak egin behar ditu, segurtasun juridikoa eskaintzen dion esparru juridiko batean.

10 - Europako mugaz gaindiko lehiaketa publikoetara deitzeko aukera

Hegoaldetik Iparraldera eta alderantziz operadoreen aukeraketari buruzkoa izan daiteke, bidaia kolektiboak, autobusak, bereziki, ura eta hondakinak saneamendua edo ekonomia zirkularraren birbalorizazioaren sektoreetan.

11 - “Mugaz gaindiko” hezkuntza

Frantzia-Espainia mugaz gaindiko aprentizgoari buruzko akordioa

2022ko Otsailaren 21eko legeak mugaz gaindiko ikaskuntza ahalbidetzen du. Frantziaren eta inguruko herrialde baten arteko alde biko akordioak beharrezkoak dira. Dagoeneko Uztailaren 21ean egin zuten Alemaniarekin akordioa. Mota bereko hitzarmena Espainiako Estatuarekin egin behar da. Horri esker, Hego Euskadiko enpresek Iparraldeko aprentizgo ikasleak ukan lezakete eta alderantziz.

Hego Euskadiko unibertsitate baten adar bat ezar daitekeen argitzea

Boloniako akordioen baitan, Hego Euskadiko unibertsitate batek Ipar Euskadin antena bat jartzeko aukera argitzea eta alderantziz. UPPA Baionako kampusaren garapenerako osagarri litaik.